

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AGURAINGO UDALA

#### 2019ko enplegu publikoaren eskaintza aldatzea

Aguraingo Udalak, Tokiko Gobernu Batzarraren 2020ko irailaren 25eko bilkuran, erabaki zuen Aguraingo Udalaren 2019rako enplegu publikoaren eskaintza aldatzea, udalbatzak, 2020ko irailaren 24an, lanpostu zerrenda aldatzea onetsi ondoren. Hona zertan den aldaketa:

– Udaltzaingo Zerbitzuko agente plaza bat, C taldekoa (C1), Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 76. artikularekin bat etorritik. Eskala: Administrazio Berezia; azpieskala: Zerbitzu Bereziak; destino osagarriaren maila: 22; funtzionario plantillan jasotakoa, lanpostu zerrendan ezarritako ezaugarriekin.

– Liburuzain plaza bat, C taldekoa (C1), Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 76. artikularekin bat etorritik. Eskala: Administrazio Berezia; azpieskala: Zerbitzu Bereziak; destino osagarriaren maila: 22; funtzionario plantillan jasotakoa, lanpostu zerrendan ezarritako ezaugarriekin.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Agurain, 2020ko urriaren 8a

*Alkatea*

**ERNESTO SAINZ LANCHARES**